

Zakurrei eta jabeei erakusten

Adituek jabeei nola jokatu behar duten azaldu diete zakurrek sortutako arazoak baztertzeko

Arrakastaz burutu zen ostegun eta ostiralean Lasarte-Oriako Udalak zakurren jabeentzat antolatu duen ikastaroa. Helburua, zakur jabeak hezi eta zakurren artean izaten diren arazo eta iskanbilak saihestea izan da. Bi egunetan zakurren jabeei aholkuak eman dizkiete zakurrek jokabide zuzena izan dezaten, gero zakurren artean arazorik izan ez dadin, hau da, kalean edota parkeetan gurutzatzen edo elkartzen direnean elkarrekin hartu-eman egokia izan dezaten.

Udalak kexak jaso ditu zakurrak parkeetan dabiltzalako eta zakurren artean izaten diren borrokek sortzen dituzten eragozpenak direla eta. Hortik abiatuta eta zakurren jabeak kontzientziatzeko helburuarekin antolatu dute ikastaroa, Gurutze Irisarri Udal Teknikariak adierazi digunez.

Udala zuzenean jarri zen harremanetan zakurren jabeekin eta hauei bidalitako gutunak erantzun ona izan

du. 30-40 lagun inguru izan ziren osteguneko hitzaldian eta ostiraleko topaketa praktikoan.

Ostiralean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Atsobakarrren, zakurren jokabideak aztertu eta jabeek zein jarrera hartu behar duten erakusten aritu ziren Jon Azpiroz zakur hezitzailea eta Irungo "Mi Noble y Fiel Amigo/Nire Adiskide Zintzo eta Leiala" elkarrekin Manuel Villar eta Maria Riesgo zakur-etologoak, hau da, animalien portaera aztertzen jakitunak.

Aditu hauek osteguneko hitzaldi teorikoa eman zuten eta ostiralean bezperan azaldutakoa praktikan jarri zuten Atsobakarreko parkean. Hirurak dira zakurren trebakuntzan adituak, eta banan-banan aztertu zituzten Atsobakarrera hurbildu ziren jabe eta zakurren jokabideak. Zakurren erreakzioak nolokotzat izaten diren, une bakoitzean zakurrek duten jarrerak zer esan nahi duen, eta beste hainbat egoera jorratu zituz-



Hainbat herritar Atsobakarren izan zen euren zakurrekin ostiral arratsaldean adituen aholkuak entzuten.



Maria Riesgo, Jon Azpiroz eta Manuel Villar adituak zakur jabeek inguratuta.

ten. Gurutze Irisarri udal teknikariak ukatu egin du beste Lasarte-Oriako Udalak honetan zakurrak libre eramateagatik edota zakur-kakak ez jasotzeagatik "momentuz" isunak jartzeko asmorik duenik eta jabeak kontzientziatzearen bideari helduko diola azpimarratu zuen. Horixe izan da hain zuzen ere ikastaroa antolatzen bultzatu dituen arrazoia.

Ikastaroa eman zuten adituen esanei adi, Ingurumen Batzordeko buru Marisa Zubiri eta Martin Moreno zinegotziak ere Atsobakarren izan ziren ostiralean . •



Munduko Kopako 3. proban urrezko domina eskuratu du Maialen Chourraut-ek /2

GIZARTEA/3
Karmengo Amaren ospakizunak ostiralean burutuko dira Orian



Donostia-Tolosa trenbideko tunel ezkutua agertu da 2. gerrikoaren lanekin /4-5



MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuanekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateaa
Odolkia- Solomo ontzutua
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra  Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Munduko Kopako hirugarren proban urrezko domina eskuratu du Maialen Chourraut-ek

Maialen Chourraut lasarteoriatarak ekainaren 26-27ko asteburuan Seu d'Urgellen ospatutako Munduko Kopako bigarren proban urrezko domina eskuratu zuen emakumezkoen K-1 mailan. 99.65 segundoko denborari esker lortu zuen gure herriko kirolariak domina.

Elena Kaliska, olinpiadetan bi aldiz txapelkun izan den eslovakiarra, garaitzea lortu zuen finalean Atletico San Sebastian taldeko kirolariak. Finalurrekoetan hortxe hortxe ibili bazen ere, azken proban 108 ehuneko ateratzizkion eta hirugarrenari, Fionna Pennie britainiarrari, aldiz, 110 ehuneko.



Maialen Chourraut-ek lehenengo aldiz Munduko Kopako txapelketan urrezko domina eskuratu du.



Arg.:Agusti Cucurullis

Entrenamendu lekuan

Seu d'Urgell ondo ezagutzen du lasarteoriatarak. Donostian slalom praktikatzeko leku aproposik ez dagoenez, Seu d'Urgell-eko ur mugituetan entrenatu eta probak prestatzen baititu. Kontent ikusi zitzaion Chourraut-i Munduko Kopa lehen aldiz irabaztea lortu baitu.

Laugarren postua

Munduko kopako hirugarren proba pasa den asteburuan, uztailearen 3-4an ospatu zen Augsburg-en, Alemanian.

Maialenek laugarren postua lortu zuen, lehenengoaren gaindik 376 ehunekoetara.

Oraingo honetan ez du podium-a igotzerik lortu, baina, oso hurbil ibili da lasarteoriatarra.

Augsburg-era joan baino lehen Chourrautek argi zeukan bertan aurkituko zituen ur mugimenduak ez zirela ohi-

koak eta berarentzat egokiak izango. Gainera, ur horietan arraunean ondo arituta ere, orain arte zailtasun handiak izan ditu postu ona eskuratzeko. Dena den, laugarren izan da azken proban, podiumetik oso hurbil, alegia .

Europako sariketan ondo

Lehenengo postua lortu zuen Maialenek bestalde ekainaren 4ean Europako txapelketako lehenengo itzulian. Bratislavan ospatutako proba honetan txapelketa honetako finalurreko-atarako txartela lortu zuen. •



Zaldi eta zaletuen hotsez bete da hipodromoa.

Hasi da zaldi denboraldia hipodromoan

Atzotik hasita irailaren 13a arte, luzatuko da zaldi denboraldia hipodromoan. Hamabi zita izango dira orotara. Eta hitzordu bakoitzean sei zaldi lasterketa. Proba guzti hauen irabazleen artean 987.150 euro banatuko dira.

Abuztuaren 15ean urtero bezala lasterketa nagusia jokatuko da, 42. Urrezko Kopa, ez ohiko ordutegiarekin, 16:45ean hasita. Estatu-ko proba garrantzitsuen eta internazionalena, Defi du Galop lehiaketaren barnean kokatzen da. Irabazleak 40.000 euro jasoko ditu eta

20.000 euroko balioa duen kopa ere bai.

Bestalde, abuztuaren 26an ate irekien eguna izango da, sarrera doan. Egun horretan, argazki rally-a ere egingo da.

Klausura

Irailaren 3an Dehesa del Milagro saria jokatuko da, lehenengo aldiz Donostian. Bi urteko pottokek parte hartuko dute eta irabazleak 50.000 euroko saria jasoko du.

Ordutegiak

Atzokoa izan genuen lehendabiziko jardunaldia, eta hemen-

dik aurrera igandero, arratsaldeko 17:30 hipodromoan zaldi lasterketak disfrutatzeko aukera egongo da.

Abuztuaren, igandeez gain, ostegunetan ere egongo dira karrerak. Ordutegia, 17:15etan.

Sarreraren prezioa

Uztailean eta irailean 7 euro ordainduko dira hipodromoan sartzeko. Abuztuaren, aldiz, 10 eurokoa da sarrera. 14 urtetik beherakoek sarrera doan izango dute eta erretiratuek, 14-18 urte bitartekoek bezala sarreraren erdia, %50, ordaindu beharko dute. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argibide ugari Udaltzarrean

■ Udaleko langileek Udaltz hitzarmenarekin bat egiten dute ■ Zaballos alkateak hainbat eskaera eta galdereei erantzun behar izan zien ostegunean

Osteguneko Udaltzarrean, Rikardo Ortega hainbat ordezkarietatik kentzeaz gain, beste gai batzuk jorratu ziren.

Lasarte-Oriako Udaleko funtzionario eta beste langileen lan-baldintzak arautzen dituen esparru edo eremua aldatzeko proposamena onartu zen.

Honen bitartez, Gobernu taldeak enpresa komitearekin negoziatu eta gero, udaleko langileek Udaltz hitzarmenarekin bat egiten dute.

EBko Rikardo Ortega eta LOHPko Isabel Prieto zinegotziek bozkan abstentzioaren alde egin zuten.

Aurretik sinatutako hitzarmena bete behar dela azpimarratu zuten biek. Eta Rikardok gainera kezka ditu: "Estatuak esku artean duen dekretua onartzean, ea zer gertatzen den akordio honekin". Alkateak "dekretua onartu arte itxaron behar da eta orduan, ikusiko da," esanaz erantzun zion Ortega jaunari.

Ezker Abertzaleko zinegotziak, aldiz, pozik agertu ziren langileen ordezkariekin hitz egin eta akordiora iritsi izanagatik.

Aparkalekia Zumaburuan

Ohizko batzarra izanik, alderdiek galderak eta eskaerak egiteko aukera izan zuten eta alkateak argibide eta erantzun ugari eskaini behar izan zituen.

Horrela, LOHPko zinegotziaren galdera bati erantzunez, Lasarte-Oriako alkateak Zumaburuko oinezko eremuetan gauez aparkatzeko

baimena eman nahi duela jakin dugu, "eremu horretan dauden lanak bukatzen direnean".

Aurrekontua

Bestalde, gobernu taldeak 2010 aurrekontua iraila edo urriaren aurkeztu beharrean, 2011koa prestatzeko asmoa du. EAJ eta LOHPko zinegotziek bat egin zuten proposamenarekin.

Jesus Zaballosek 2010eko aurrekontuen dokumentuak kontu-hartzaileen eskuetan daudela eta hauek memoria egin behar dutela jakitera eman zuen.

"Zerbakiak bat badatoz, 2010eko aurrekontua aurkeztuko dut. Horrela ez bada, 2011koarekin hasiko naiz. Izan ere, nire ustez, aurrekontua beharrezkoa da udalak aurrera egin dezan," adierazi zuen.

Zabor bilketa sistema

Gobernu taldea atez ateko bilketa sistemaren aurka dagoela argi geratu dela aipatu zuen Rikardo Ortega.

Honela, bostgarren edukiontzia jartzeko proiekturik ba al dagoen galdetu zuen.

Izan ere, herria legetik kanpo dagoela gogoratu zion alkateari, "legearen arabera, materia organikoa bildu behar luke."

Alkateak bostgarren edukiontzia iruzur oraindik ez duela pentsatu onartu zuen.

Sistema telematikoa

Isabel Prieto, LOHPko zinegotziak herritar baten galdera eta eskaera eraman zuen



Zinegotzien galdera eta eskakizunei erantzuna eman zion Lasarte-Oriako alkateak osteguneko Udaltzarrean.

Udaltzarrean, zerbitzu telematikoen erabilzaila kopurua eta hauen bitartez, Udaltz Musika eskolako aurrematricula eta matricula egiteko aukera egotea.

Alkateak Udaleko zerbitzuak hobetzen saiatzen direla adierazi zuen. Ezin izan zituen datuak eman, baina herritar guztiek Internet ez dutela gogoratu eta horretarako, WIFI puntuak eta kioskoak jartzeko ari direla gogoratu zuen.

Argibide eta eskaera ugari

Honetaz gain, ezker abertzaleko ordezkariak udaltzainen akordioa nola dagoen galdetu zuten. Jesus Maria Zaballos alkateak udaltzainen ordezkariekin hitz egin ostean, hauek Udaleko langileak direla adostu eta Udaleko hitzar-

menaren barruan daudela jakin arazi zuen.

Era berean, Euskara batzordea doazen PSOE-EEko ordezkariak euskaraz jakin edo ulertzen dutenak izan daitezela eskatu zuten ezker abertzaleko zinegotziak: "Euskarari garrantzia eman nahi badiozu eta sinesgarritasuna edo konfiantza lortzeko bederen" adierazi zioten alkateari.

Batzordeetako bileretara PSOE-EEK izendatutako zinegotziak joan ezin badira, ordezkariak joaten direla erantzun zuen alkateak.

Bestalde, Kirol batzordean, Loidi Barrenko frontoia zergatik itxi den galdetu eta erantzunik izan ez zuten, ezker abertzaleko ordezkariak udaltzarrean eraman zuen galdera hori.

"Dakizue, Loidi Barrenko pilotalekua bi faseetan eraikiko da. Lehenengoa bukatu zen eta orain hasi da bigarrena. Honetan, pilotalekuko argiteria, padeleko pista eta rodomoia egingo dira," erantzun zuen Zaballosek.

Rikardo Ortega EBko zinegotziak San Pedro jaiak hasi baino lehen txosnen kokalekuaren inguruan egondako tirabirei buruz galdetu zuen, dudu tekniko edo legalik egon ote zen alegia.

Alkateak tirabirarik ez zela egon azaldu zuen, "txosna haiek eskatutako lekuan jartzeko asmoa zegoen, Loidi-Barrenko frontoiaren aurrean. Baina haiek leku aproposa ez zela jakin arazi zidaten eta errepidean egin zen azkenean. Gurekin behintzat ez dute kezkarik" •



Urtero legez, Oriako auzotarrek Karmengo Amaren eguna ospatuko dute ostiralean.

Karmengo Amaren ospakizunak ostiralean burutuko dira Orian

Datorren ostiralean, uztailearen 16an, ospatuko den Karmengo Amaren egunerako prestatzen ari dira dagoeneko Oriatarrak. Urtero legez, hainbat ekitaldi prestatu dituzte eta herriko lagunei, zein auzoko bizilagunei gonbita egiten diete ospakizunetan parte hartu dezaten.

Goizeko 10:00etan trikitilariak alaituko dituzte kaleak. Solano musika eskolako trikitixa ikasleak arduratuko dira horretaz.

Eguerdiko 12:00etan auzoko Karmengo Amaren kaperan meza egingo da. Juan Luis Muruak zuzenduko du meza, Xabier Andonegi eta Ramon Uribeberriaren laguntzaz.

Pilar Catalina sopranoak abestuko du mezan, eta Amaia Dorronsorok joko du organoa.

Mezaren ondoren ez da jai giroa gutxituko. Trikitilariak kalejiran jarraituko dute auzoko kaleetatik barrena bazkaldoria bitartean. •

Donostia-Tolosa trenbideko tunel ezkutuak argia ikusi du

Ehun urteko tunel antzindaria aurkitu dute Teresategin bigarren gerrikoaren lanetan

Denbora luzez estalia egon eta gero, Donostia-Tolosa trenbideko tunel antzindariaren arrastoak aurkitu dira. Duela mende bat funtzionamenduan zenean, gerraibide garrantzitsua izan zen tunelak argia ikusi du herririko bigarren gerrikoaren lanen ondorioz. Erreportaje hau Trenbidearen Lagunen laguntzari esker egin da.



Arg.: PP-Amuchastegui

Bigarren gerririkoko lanetako esker-historia azalertu da.



Errekaldean burutzen ari diren obraren irudiak zuloak, duela 100 urteko tunel ahaztua azalertu da. Arg.: PP-Amuchastegui

Gure herriaren inguruan egiten ari diren errepide labrintoa, fusterea baino ez dago, komunikazio bidearen gure herriak daukan kokalekuren garrantzi estatu-gisara antzemateko. Askok

jakingo dituzten meduan, ez baina garza berria, bigarren gerrikoaren lanetan ari zirela, Teresategiko azpialdean, ia egunetan, duela 100 urte Donostia-Tolosa bidea egiten zuten trankiloak tunel bat aurkitu dute.

Etorkizuneko Donostialdeko metroaren Lasarte-Errekalde tarteko lehen harria jarri da

Jesus Maria Zaballok, Lasarte-Oriako alkateak, eta Inaki Arriola, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraiobideen kontseiliarak etorkizuneko Donostialdeko metroaren lehen harria ipini zuten Lasarte-Errekalde tartean.

Lasarte-Oriako antzinako pausalekuan izan zen ekitaldia, eta bertan, herriko alkateak mugikortasun egitasmoan Lasarte-Oriaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen.

9 milioi eta erdi Lasarte-Oria eta Errekalde arteko 1,700 metro luzealdeko erdibikataren zati handiena egungo trenbidearen paralelo doa. Lanetarako 9 milioi eta erdi aurrekontua dago eta burutze epea 18 hilabetetan finkatu da.

Bilbide herri honi esker bidaien frekuentzia bikoiztu, eta 7 minutuko tren bat iten- gido.

Mugikortasuna zabalduz Zaballosek azpimarratu nahi izan zuten mugikortasun poli-

tiken sustapena, modu eragile eta eraginkorrean suspertu beharra dagoela apatu zuen; bai Eusko Jaurlaritzak, bai Gipuzkoako Foru Aldundirik eta baita udalekueen bitartez.

Ospitaleetara linea

Guzti honen harian, herriko alkateak Foru Aldundiarri Lasarte-Oria-Ospitaleak autobus-linea birplanteatzeko agintzen dio. "Nahiz funtzionamenduan egon, ez du gure hiritarren beharrak asetzen" kritikatu zuen Zaballosek. Tajamarreko errotandako geltokian du autobus linea honek herriko parada bakarra, Usurbil eta Zubietako parada ezberdinen aurrean. Zaballosek lasarte-orientarrentzat berdina eskatu zuen.

Apustu globala

Jesus Maria Zaballok Lasarte-Oriako alkateak, herri eta eskualdean mugikortasunean apustu globalago baten alde agertu zuen. "Gipuzkoako lurralde guztiari iristeko desioak plazaratu.

Zaballosek gogoratu nahi izan zuten mugikortasun poli-



Arg.: PP-Amuchastegui

Duela mende bat trankila zen gerraibide garrantzitsua, eta orain metroa izatea espero da

duteen bezala, harikaitzez gainjantzia zeigoren eta dobetan 13 geltoki, Lasarte-Oriako geltokia, Trenbide Vacongados eta Plazaakoarekin tren-aldaketa ahalbidetzen duen. Beraz, geltoki garrantzitsua izan zen gurea.

100 urteko historia

Trenbidea bi etapetan hasi zen funtzionalizazioan. Lehenengo, 1911ko abuztuaren 16an Donostia eta Andoain lotuz, eta bigarren fasea, 1912ko abuztuaren 27an Andoain eta

Tolosa artekoa. Ibilbidea 550 metroko bide metrikoko elektrikoa izango duzue.

Baztertu ziren unitate horien motorrak Zaragozako trenbideko kotexetan jarri ziren, non denbora batez funtzionatzen jarraitu zuten.

Azpetitiko Trenbide Eskualdeko 2a arte ikusi ahal izan genuen trankila martxan, auto-motorria eta bagoiak trolebus elektriko-

zenbakiko erremolka, Tolosako trankilo originalak eta Cardé eta Escortazak 1944an eraikitakoak.

Egun Donostialdeko metroaren proiektuen bitartez trenbidea gerraibide kolektibo bezala errekuperatzen saiatzen ari dira. Gure atzindariek duela mende bat gerraibide bezala erabili zuten, baina gu baino egonera prekontagioan. •

Tunelak egun agertzen diren irudia. Luzeran duen kilometroa ondo mantendu da lur azpian.



Arg.: PP-Amuchastegui



Arg.: Lasarte-Oriako Udaia

Hiribusa

Era berean, Lasarte-Oriako lehen hiribusa linearen berretzeak ez baditu Gipuzkoako bigarren inbentarioa sarean delako, 3,6 kilometro osatuz. "Udalekiletatik egiten eta errekuperatu zuten herriko gogorazari nahi izan zuten Zaballosek.

Donostia-Tolosa trankila Teresategiko mendiko inguruetan dagoen tunel bat azalertu zen. Lasarte-Oriako geltokia garrantzitsua izan zen XX. mendearen hasieran.

Udako txoko eta kanpaldiak ekintzez beteak

Milaka abentura biziko dituzte herriko haur eta gazteek udara osoan zehar



Udako txokoetako txikiak ederki gozatu zuten asteartean Andatza plazan antolatutako entzierroan.



Mendigorrian irteerak, tailerrak, jokoak, igerilekua... gaztetxoak primerako udalekuak ari dira igarotzen.

Ikastola bukatu eta haurrek ez dute aspertzeko betarik Ttakin Kultur elkarteak, Udalarren laguntzaz, antolatutako Udako txoko eta kanpaldietan.

Udako txokoak

Udako Txokoak uztailaren 1ean hasi ziren. Landaberri-Garaikoe-
txeako eraikina eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeako Sasoetako eraikina umez bete dira hilabete bukaera arte, baina oraingoan haur eta gaztetxoei gozatzeko aukera iritsi zaie.

Izan ere, hamaika ekintza eta abentura biziko dituzte uztaila eta abuztuan.

Esate baterako, asteartean, San Fermineko txupinari aurre

hartuz, Iruñeako jaien giroa bizitzeko aukera izan zuten txikienek Andatza plazan. Izan ere, eguraldia lagun, txupina eta entzierroa egin zuten bertan.

Ederki egin zuten lasterka gaztetxo gehienek zezen eta behiaren aurrean; txikiak, ordea, izkina batean geratu ziren begira.

Hau guztia, Pirritx, Porrot eta Marimototsen Gora Sanfermin abestiak girotua egon zen.

Handienek, berriz, irteerak izan dituzte. Tolosako txotxongilo museoaren ezagutu dute LH1ekoek, urte bete zaharragokoek Zelatun eta LH3 eta LH6 artekoek, Bertizko jaurreriko natur parkea.

Hauek gainera, lagun berriak egiteko aukera izan zuten, Urnietako udako txokoetako gaztetxoekin batera egin baitzuten txangoa.

Mendigorria

Bestalde, larunbatean uztailearen 3an, udaleku itxiei hasiera eman zitzaion.

Lasarte-Oriako 75 bat gaztetxo autobusa hartu eta Nafarroako Mendigorria herrixkara egin zuten.

Bertan, gaztetxoek *Denboraren makina* programa egingo dute jokoek, tailerrek eta ekintzez betetako, hala nola, pringe eguna edo malabaren tailerra.

Helduenek, aldiz, *Erronka Xtreme* programa dute. Honen barruan, lau eguneko irteera egin dute txirindaz eta inguruko Larraga eta Oteiza herriak ezagutu dituzte.

Atzo, berriz, guztiak *Senda Vivara* txangoa zuten. Ziur primeran pasa zutela, bai haurrek, baita begiraleek ere, bertako atrakzio, animala eta ikuskizunekin.

Eta ezin ahaztu, etxeko igerilekuan egingo diren jokoenak eta bertan igaroko dituzten momentuak.

Kanpaldiak

Kanpaldi ibiltariari dagokionez, uztailearen 3an, Heletan

burutu zen Euskal Herria Zuzenean jaialdiara joan ziren.

Bertan, goizean, gogor egin zuten lan eta arratsaldean, Berri Txarrak, Zea Mays edo Bizardunak taldeen kontzertuak ikusteko aukera izan zuten gazteek.

Aste honetan zehar, Bida-rrai eta Baigorri inguruak ezagutu dituzte eta eskalada egiteko astia ere izan dute.

Orain, Baztango bailaran dabil taldea eta Elizondo dute helmuga.

Etxera bueltatzeko gutxi falta zaie, baina ekintza ugari dituzte oraindik egiteko kanpaldi berezi hauetan. •

Ola kalea itxiko da gaur, saneamenduko lanen hirugarren fasea dela eta

Lasarte-Oria eta Usurbil udal-
lerrien saneamenduko inter-
tzeptore orokorreko lanak
dira eta, gaurtik aurrera Kale
Nagusitik Ola kalerako sarrera
itxita aurkituko dugu.


Lan hauetako hirugarren
faseari ematen zaio hasiera
gaur eta gutxi gorabehera bi
hilabetez egongo da eremu
hori itxia.

Zirkulazioa

Era honetara, Ola kaleko
mozketa dela eta, zirkulazio
aldaketak egongo dira gaurtik
aurrera Zumaburu eremuan.

Zumaburu auzorako sarre-
ra elizaren ondotik izango da
eta auzoaren irteera Erribera
kaletik. Zumaburu kalean
kotxeen zentzua aldatu egin-
go da, beraz.

Kalean zentzuarekin gerta-
tzen den bezala, garajeen



Zumaburu eremuan zirkulazio aldaketak egongo dira bi hilabetez. Zumaburu kalearen norantza aldatuko da. Arg.: L-O Udala

sarrerak eta irteerak ere zen-
tuz aldatzen dira. Orain arte

sarrera zena irteera izango da
eta irteera zena, sarrera.

Proiektua

Iparaldeko Konfederazio

Hidrografikoak sustatutako
proiektua da hau eta garrantzi
berezikoa izango da uda-
lerriarentzat.

Honi esker, Loiolako araz-
tegiarekin konektatuko da
herriko saneamendu sarea
eta, ondorioz, Oria ibaira ez
da isurketarik egingo.

Fase ezberdinak

Herritarrei ahalik eta gutxi-
ena jasanarazteko eta irten-
bideak eman ahal izateko, lau
fase independentetan ekiten ari
da proiektua.

Lehenengo fasea eta biga-
rrena amaitu dira eta hiru-
garrenari ematen zaio gaur
hasiera.

Era berean, alkatetzak bar-
kamena eskatu nahi du sortu
daitezkeen eragozpenengatik
eta bizilagunen laguntza izan-
go duelakoan dago. •

Egunero

Erakusketa

PAISAIA AMETSETAN margo erakusketa ikusgai Jalgin. Rudy margolariaren lanak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala 16

Jaia

KARMENGO AMAREN EGUNA ospatuko da Oria auzoan. Goizeko 10:00etan Solano Musika Eskolako trikitilarien kalejira. Eguerdiko 12:00etan berriz, meza izango da Karmengo Amaren kapera Pilar Catalina sopranoa eta Amaia Dorronsoro musikariarekin.



Añorgako Jaiak

Osteguna, 15

10:00etan eta 15:00etan Haurrentzako jolasak.
19:30ean Aitor musikariaren emanaldia.
20:00etan Sardina jate herrikoia.
20:30ean ZEMENTON-en jetsiera.
22:00etan SORPRESA, jaialdia
00:00etan KARAOKEA, gazte lokalean.

Ostirala, 16

11:00etan Meza nagusia.
17:30ean Arkaitz Añorgako Dantzarien emanaldia
19:00ean EGAN taldearen emanaldia.
20:00etan Haurrentzako mozorro festa.
21:00etan Orikiz mozorro festa.
23:00etan EGAN taldearen emanaldia.
23:00etan Kontzertuak gazte lokalean: Friday's Crew, Never Surrender eta Material Rechazado.
01:00etan Zezen suzkoa

Larunbata, 17

09:00etan Diana erraldoi eta buruhandiekin.
11:30ean Tiro txapelketa karabinaz.
11:30ean Artisauen lanen erakusketa.
12:30ean Bakailu prestaketa eta sagardo dastatzea.
17:00etan Xake lehiaketa.
17:30ean Haurren danborrada.
18:00etan Futbito txapelketa-kofinala.
20:00etan Danborrada nagusia.
23:00etan KUPELA taldearen emanaldia.
23:00etan Kontzertuak gazte lokalean: Single socks, Luz de Putas eta Blaka.

Igandea, 18

10:00etan Erraldoi eta buruhandien IV. topaketa
10:00etan Bola tiraketa
11:00etan Xake lehiaketa
12:00etan III. Patata tortilla lehiaketa.
16:00etan Jolas Etxea LVI. Pilota txapelketa finalak
23:30ean Bertso saioa.

Oharrak

Usubilgo Lanbide Eskolan epea zabalik

Usubilgo Lanbide Eskolan matrikula egiteko epea ireki dutela jakinarazi dute. Interesa duen orok matrikula uztaillaren 7tik 13ra bitartean egin dezake.

Urrezko ezteiak

Mikeli Bengoetxeak eta Joxe Jauregik urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Ospakizuna uztaillaren 16an, ostiralean, eguerdiko 13:00etan Oriako Karmengo Amaren kapera egingo den elizkizunarekin hasiko dute. Zorionak bikote!

Buruntz Azpiko galeper tiraketa

Uztaillaren 31n Buruntz Azpi elkarteak Galeper Tiraketa (kaiolan) ospatuko du. Aurreko urteetan bezala izen-ematea Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin behar da; hamai-ketakoa egongo da.

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpaina berri jarri zuen martxan asteartean. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordainketan.

Musika Eskolan matrikula egiteko epea zabalik

Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolako matrikula egiteko epea uztaillaren 1ean zabaldu zen. Aurrematrikula egin eta plaza duten herritarrek orain

dute behin betiko izena emateko epea. Matrikula egitera Manuel Lekuona kultur etxe-ko bigarren solairura joan behar da, goizez 9:00etatik 13:00etara eta azken eguna uztaillaren 16a izango da.

Stock eta Saldoen III. Azoka martxan

Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea merkatariei-elkarrekin herriko komertzioei. Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egingo da, Michelin Kirol guneko pilotalekuan. Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearekin jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono-zenbakien bitartez, edo itziariruzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bat bidalizi.

Buruntzaldeako Kirol Instalazioak

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzeko diegu: Abonua Buruntzaldeako edozein Udalen Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela, gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuz.

Era berean, jakin arazten da, Urrietako kirol instalazioak erabiltzeko derrigorrezkoa izango dela, bazkide txartelaz gain, takiletarako kandadua eramatea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILAN

Goizez: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara

Arratsaldez: astelehenetik 16:00etatik 20:00etara
Larunbatetan, itxita

ABUZTUAN itxita egongo da



Manuel Lekuona kulturtxea

Manuel Lekuona kulturtxea
Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Eskutitzak

Jokatu garbi Zaballos jauna

Zaballos jauna, garbi dago erdaraz esaten den bezala "hombre de partido" zarea. Ez zara zure "jefe"na, ez dakigu berria zarelako, esperientzia ezagatik edo benetan zarelako "hombre de partido".

Guk, Ricardok alderdi sozialistarekin lotu zituen akordio berririk ez dugu. Zuen artean ze gora-behera egon diren (konfiantza eza, leialtasuna...) edo dauden ere ez dakigu, baina garbi dagoena da hau ez dela zuk bakarrik hartu duzun erabakia, Zaballos jauna.

Zabaldu den informazio-

aren arabera orain gutxiengoan zaudetenez zehar gaituzue (hotela, Teresategi arauen aldaketa, aurrekontuak).

Kontxo, orain konturatu zarete (Urchueguiari ohea egin eta gero) erdaraz esaten den bezala (hacer la cama a Ana Urchuegui) zehar plentotan gutxiengoan egoteko arrisku bizi zaudetela eta horrek oso urduri jartzen zaitu Zaballos jauna.

Baina ez gaituzue engaina, ez gara inozentek. Erabaki honen atzetik, ondo aztertu eta pentsatutako plan-estrategia dago: San Marco mankomunitatea apurtzea. Eta plan-estrategia honen atzean ez zaudete zuek bakarrik (alderdi sozialista) Zaballos jauna, zuekin batera EAJ eta HAMAIBATEKO morroiak daude.

Orain dela hilabete batzuk Estitxu Alkorta (EAJ-PNV) pleno batean galdetu zuen Ricardo San Markoseko mankomunitatearen mantentzeak ze zentzu zuen. Orduko hasiak zineten bazterrak nahastu-kakaztu nahian, Estitxu. Hiru alderdi eta hirurak bata besteari urduri zaudete jaun-andreok eta hegan dijoan txoriari hegalak moztu nahi dizkiozue kosta ala kosta (hondakinak kudeatzeko beste eredu eta aukera bat badago, demonstratua, hor dituzue datuak), baina lasai, txoriak altu eta luze egingo du hegan eta.

Zuen alderdien botere goseak, eta negozio zikiñak, horrelako maniobra ilunetara zaramatzate. Interes ekonomikoak tarteko ederki

konpontzen zarete zuen artean (EAJ-PSE) HAMAIBA BAT konparatzen duzuela. Ala erraustegiaren atetik ez dago interes ekonomikorik? 400 milloei gastatzea eta horrek sortuko duen goxoki gozoari (kudeaketa) koska egitea, ez da nolana hiko mauka. Goxoki horren truke milaka pertsonen osasuna arriskuan jartzeko kapazak zarete. Zein eskubiderekin?, Noren baimenarekin? Zaballos, Alkorta, Iradi eta Izeta jaun-andreok. Non eskaintzen dituzte bere zerbitzuak FCC eta ZERBITZU bezalako enpresak, Alderdi Sozialista eta EAJ agintean dauden herrietan. Eta kontxo bi enpresa hauek erraustegiaren kudeaketaren tarteko. Baina lasai denborak garbi adieraziko du nor ari den fin eta transparen-

tziaren lanean.

Eta bukatzeko Zaballos jauna: hasiera batetan zure etorrerak aire freskoa zerion eta dario? udaletxe honi, (asmo eta ideia berriekin etorri zara) baina zure azkeneko zentzuak erabakirekin, Urchueguiaren garai ilunak oraindik ere ez direla pasa iruditzen zaigu. Gure ustetan horrela jarraitzen baduzu, bere markak txiki utziko dituzue. Bi aurpegi dituen alkaterik ez dugu nahi, utzi hitz polit, faltu-keria eta zurikeriak alde batetara, eta jokatu garbi herritarrekiko, Lasarte-Oriak merezi du eta.

Joxe Goikoetxea, Itziar Iartza eta Txanpi Baztarrkia

Ezker Abertzaleko zinegotziak

Udako Zinema aurten areto barruan

- Azken bi urteotan ez da Okendon egiten zen aire zabaleko zinemaldirik izan.
- "Sagarraren denbora" eta "Itsasoaren alaba" eskaini dituzte aurten kultur Etxean.
- Martinez eta Larreategi zuzendariak berriz egongo dira Donostiako zinemaldian.

Udako zinema izaten zen duela bi urte arte Okendon, kanpoan ematen ziren filmak, aire zabalean. Iaz ez zuten ematerik izan, batetik Okendo uztailaren amaierarako itxi egin zutelako eta bestetik Okendo Zinema taldeak aurrekonturik ez zuelako. Aurten, aldiz, denboraldia amaituta bi pelikula programatu ditu taldeak, baina Kultur Etxean eman dira, astearte eta ostegunean, hori bai, beti bezala doan.

JON ALTUNA

Josu Martinez eta Txaber Larreategi zuzendari gazteen bi pelikula ikusi al izan dituzte herritarrek aurreko astean Kultur Etxean. Zuzendari hasiberriak baina eskarmetua azkar hartu dutenak dira.

Iaz, "Itsasoaren alaba" dokumentala aurkeztu zuten Donostiako zinemaldian eta aurten bi pelikula eramango dituzte: "Sagarraren Denbora, Alfonso Etxegarai eta Kristiane Etxaluz: 25 urte deserritit itzultzen" eta "Debekatua Dago Oroitzea. Saturrarango Kartzela".

Biak pelikulak dokumentalak dira, lehenengoan, 25 urte Euskal Herritik kanpo deportaturik daraman Alfonso Etxegarai eta bere bikote Kristiane Etxaluz-en bizitza eta harremana kontatzen da eta bigarrenean, 1937 eta 1944 artean Saturraranean hondartzako kartzelatik eduki zituzten bi mila emakumeren baldintza kaxkarrak.

"Itsasoaren alaba"

Ostegunean, 2009ko "Itsasoaren alaba" filma eskaini zuten. Bertan, Haizea Goikoetxearen asmoa eta hilabete batzuetako jardun edo ariketa kontatzen da: bi urte zituen GALEk bere aita Mikel Goikoetxea "Txape-la" hil zuenean eta aitaren oroitzapen batera ez badu ere, 25 urte geroago aita eta bere ingurua nolakoak ziren jakingo du pixkanaka aita ezagutu zutenen ahotik.

Asteartekoa ere dokumental zirraragarria izan zen. Urte osoa eman dute Josu Martinez eta Txaber Larreategi zuzendariak dokumentala prestatzen, 2009ko apiriletik duela gutxi arte eta hainbat ordutako grabaketa dokumental hunkigarri bihurtu dute.

"Sagarraren denbora" gutxi gorabehera ordubeteko filmean, banaturik bezain elkar-

turik bizi den bikotearen bizitza kontatzen da.

25 urte daramatza deserriratu, deportatu, Alfonso Etxegarai bizkaitarrak. Egundak Afrikako Sao Tome irlan bizi da. Kristiane Etxaluz-ek hilabete batzuk Sao Tomen igarotzen ditu, Afrikan, eta beste batzuek iparraldeko Domitxine jaioterrian, Europan. Bikotearen bizitza eta harremanak kontatzen ditu dokumentalak eta une batzuetan gutun erromantikoen garaian bizi direla dirudi.

Tartean ageri dira Lemoizeko zentral nuklearraren aurkako Alfontsoen borroka, Ipar Euskal Herrian errefuxiatu izan zen garaia, GALEn erasoak, deportazioa, torturak, eta Kristianen kasuan, errefuxiatuekin izan zuen harremana edota hilabete batzuetako kartzelaldia.

Unerik beldurgarriena Etxegarai Ekuadorren deportaturik zutenean polizia espainiarrek Euskal Herriko zulo batengatik galdezka bortizki



Bazterretan Gite/lpes-eko ordezkariak, Okendo Zinema taldekoak, Agirretxe, Kristiane Etxaluz eta Josu Martinez.

torturatu zuten unearen kontaketada.

Zuzeneko azalpenak

Josu Martinez zinema zuzendaria eta Kristiane Etxaluz Kultur Etxean izan ziren asteartean pelikula ikusi zuteneko azalpenak emateko.

Kristiane Etxaluz zuberotarrak, kontaktu zuen bi zuzendariak izan ez dituzten haurrek ematen duten goxotasuna eman diela eta asko saiatu direla biak beraien istorioa kontatzen. "Goxo handi bat izan da, Alfontsoendako irri egiteko parada izugarrikoa, ikusten

nuelarik Josu eta Txaberrekin zozokeriak erraten, pentsatzen nuen bazirela 25 urte ez zuela horrela irri egin, eta jakin ezazue hori izugarrikoa dela".

Bestalde, Etxaluzek aipatu zuten beraiei gertatua zabaltzeko egin dutela filma, "baita ere jendearekin konektatzeko, baina ahal bazen arimetatik arimetarat heltzeko".

Transmisioa

Josu Martinez zuzendariak ere oso hurbileko sentitu dituela adierazi eta gero, filma egiteko arrazoak nagusiak aipatu zituen: "lehendabizi uste dugulako hau transmititu behar zela; Kristiane, Alfontso eta egoera berean dauden beste hainbat istorio eta bizipenak ezagutarazi behar zirela, urte askotan ezkurtuan egon direlako eta guk kontatzen ez baldin baditugu, ez Txaber eta biok, baizik eta hurbil sentitzen ditugunok, ez dituelako istorio hauek inork kontatuko edo agian okerragoa dena, beste norbaitek kontatuko ditu beste modu batera, gizatasuna ere ukatuz, hau da, guk Kristiane eta Alfontsoengandik aurkitu duguna erakutsi gabe, baizik eta telediarrietan askotan entzuten dugun beste zerbait..."

Josu Martinezek horrelako istorioak jasotzen jarraitzeko asmoa duela aipatu zuen filma ikustera hurbildu zirenen aurrean. Bere ustez, "aldi berean ariketa hau guztiok egin beharko genuke, guztiok daukagu eta inguruan jende baliotsua. Ez du kamerarekin izan

behar, baizik eta elkarri entzunez eta elkar ezagutuz..." Momentu Josu Martinezek "Itsasoaren alaba" dokumentala egin zuen iaz, aurten "Sagarraren denbora" egin du Txaber Larreategirekin batera eta trilogia ixteko preso baten bizipean buruzko hirugarren bat egiteko asmoa aipatu zigan. Iaz "Itsasoaren alaba" bezala, "Sagarraren denbora" Donostiako Zinemaldian izango da eta Biarritzekoan ere izango dela espero dute.

Josu Martinezek adierazi zuenez, beraietzat ere "esperientzia oso goxoa" izan da filmaren grabaketa: "Alfontso eta Kristiane ezagutu ditugulako, oso hurbileko sentitu ditugulako, azken finean benetan pertsona bereziak, ezagutzea merezi dutenak. Niri plazer handia ematen dit, Alfontso eta Kristiane ezagutu eta nik sentitu dudana, beste batzuei transmititzen saiatuz, beste batzuei ezagutzeko aukera emanaz" adierazi zuen aurreko asteartean Kultur Etxean.

Dokumentala ikustera joan zirenei filmari buruzko iritzia edo "kritika" Alfontso sagarrarenborra@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu zien, "eta agian jasoko duzue erantzun bat itsasoaren beste aldeetik. Dokumentala ikusi duzue eta ikusi duzue oso eskuzaballak direla".

Okendo Zinema taldeak antolatuta du Udako zinema egitaraua Gite/lpes eskaini diren bi filmek ekoizi dituen erakundearen laguntzarekin. •



Josu Martinez eta Kristiane Etxaluz azalpenak ematen pelikula ikusi eta gero.